





Mozorrotutako indarkeria biluztu!

Sarrera

Indarkeria matxistak eta sexismoa modu askotan mozorrotzen dira, horregatik, askotan zaila izaten da halakoak identifikatzea, eta maiz adierazpen horiei garrantzia kentzen diegu, hala nola: irainei, piropoei, begiradei, ukituei... eta ikastetxeetan haurren gauzak bezala justifikatzen ditugu, kasu honetan maskulinoak, haiek izan ohi direlako, ez guztiek, duten botereaz abusatzen dutenak eta gehienbat neskei edota maskulinitasun eredu hegemonikoaren disidente diren mutilei erasotzen dietenak.

«Intentsitate txikiko» indarkeria horiek, mikromatxismo deritzenak, hautemanezinak dira askotan, eta, kontziente izan gabe, naturalizatu eta ikusezin bihurtzen ditugu. Hala ere, indarkeria bat ere ez da txikia, eta erasotzaile bat ere ez da inoiz gazteegia; beraz, jokoz eta intenzionalitatez ezaz mozorrotutako indarkeria sexista biluztu behar dugu, eta gartzetatik esku hartu behar dugu, normalizatua izan ez dadin eta gure ikasleak bortxaketaren eta menpekotasunaren kultura betikitzen duten maskulinitate- eta feminitate-eredu jakin batzuetan gizarteratu ez daitezen, emakumeen aurkako sexu-indarkeria elementu erromantiko bihurtzea indartzen eta normalizatzen dituzten eleberri, film eta abestien bidez.

Hezitzaile garen aldetik, gainerako hezkuntza-komunitatearekin batera, honako gai hauetan eragitea da gure zeregina: autonomia eta norberaren gorputzaren zaintza, sexu-desira, genero-berdintasuna, adostasuna, afektuak, sexu-askatasuna eta besteekiko errespetua. Izan ere, hori egiten ez badugu, mutilak erasotzaile potentzial bihurtuko ditugu, eta neskak, aldiz, biktima potentzial.

Hezkidetzaren eta hezkuntza afektibo-sexualaren bidez, tresnak ematen badizkiegu soilik, izango dira gai gure ikasleak abusu-egoera posible bat identifikatzeko eta agerian jartzeko, saihesteko edota salatzeke.




Abiapuntua

HELBURU OROKORRA

Ikastetxean egunerokotasunean ematen diren erasoak azalratzea eta hauei konponbidea ematea.

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Askatasuna ahalbidetzen duen bizikidetasunerako jarrera egokiak eta desegokiak identifikatzea.
- Normaltzat hartzen diren baina emakumeen kontrako erasoak ezkutatzen dituzten ohiturak, sinesmen eta praktiken aurrean espiritu kritikoa garatzea, haien ondorioez jabetzeko eta kontra borrokatzeko.
- Ikasleen auto-estimua era aktiboan sustatzea, beraien garapen psikosoziala indartuz, erabakiak hartzeko gaitasuna izan dezaten.
- Arazoak konpontzeko taldeko estrategiak garatzea.
- Beldur mota desberdinak identifikatzea kontra jotzeko kapaz izateko.
- Zein jendarte eredu nahi dugun hausnartzea, hura aztertuz, jendartearen norbanako guztien ongizatea bilatzeko.
- Gaitasun sozialak lantzea jabetze prozesu bat gauzatzeko (bai/ez esatea, argudiatzea, eskatzea, nahia adieraztea..), horretarako behar diren egoerak eskainiz, askatasunez bizitzen ikasteko.
- Gatazken konponbidea modu positiboan lantzea, horretarako behar diren egoerak eskainiz, enpatia garatzeko.





OINARRIZKO GAITASUNAK

- Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.
- Informazioa lantzeko gaitasuna eta gaitasun digitala.
- Kultura humanistikoa eta artistikoaren gaitasuna.

EDUKIAK

- Unitatean agertzen diren jarrera ezberdinen definizioa: beldurra, elkarriketa, eskuzabaltasuna, errespetua...
- Indarkeria matxistaren kontzientzia.
- Emakume eta nesken egoeraz sentsibilizazioa.
- Emozioen identifikazioa eta adierazpena.
- Eguneroko arazoak eta konponbideak.
- Auto-estimua hobetzeko mekanismoak.
- Gaitasun sozialak.
- Elkarlanerako eta lankidetzarako jarrera eta adostasunetara iristeko prozeduren garapena.
- Erreferentziazko binkulazaioa indartzea.
- Informazioa bilatzeko, sailkatzeko, aztertzeko eta adierazteko trebeziaren garapena.





Jarduerak

Hurrengo jarduerak ikasleen adinera zein gaiarekiko duten motibazioara egokitu beharko dira. Horretarako baliabide desberdinak erabili daitezke.



GAIAREN AURKEZPENA ETA MOTIBAZIOA

Materialak: STEILASek aurkeztu duen kartela, folioak, boligrafoak eta margoak.

Denbora: 3 saio.


Taldekatze mota: Banaka, talde txikiak eta talde handia.

1. SAIOA

(HH, LH, DBH eta Batxilergoa)

Garapena:

- 1 Irakasleak STEILASeko kartela toki ikusgarri batean jarriko du.
- 2 Ikasleak talde txikitan banatuko dira eta hamabost minututan talde bakoitzari kartelaren esanahia zein den eztabaidatzeko eskatuko zaio.
- 3 Esanahiak komunean jarriko dira eta ondorengo galderen inguruan hitz egingo da adinaren arabera galderak egokituz:
 - Zer irudi ikusten duzue kartelean? Zer esan nahi dute...?
 - Kartelaren leloak zer adierazten du?
 - A 25 egun honetan zer aldarrikatzen da?
 - Kartela egun honetarako egokia al da? Zergatik?
 - Egun hauetan errebindikazioak egiten jarraitu behar al da? Zergatik?
 - Zeri erreparatu diozue horrelako ondorioak ateratzeko?



2. SAIOA (DBH eta Batxilergoa)

Aurten eleberri grafiko bat irakurtzeko proposamena luzatzen dizuegu. Bryan Talbotek 1994an idatzitako *The Tale of One Bad Rat* (*El cuento de una rata mala*). Bertan Helen gazteak etxetik alde egin, Londonetik igaro eta Beatrix Potter eleberrigilearen pausoak jarraituta, Lake District landagunera iritsi arte egiten duen bidaia ezagutuko dugu. Oraina eta iragana, errealitatea eta pentsamenduaren mundua, etsipena eta itxaropena aurrez aurre jartzen dituen kontakizun gordina dugu. Sistemak «normaltasunez» mozerrotzen diren zenbait indarkeria biluzteko aukera duzu eskuartean.

Garapena:

- 1 Har ezazu zure herriko/hiriko 4 mapa A3 tamainakoak.
- 2 Ikasleak 4 taldetan banatu eta mapan egunero egiten dituzten ibilbideak errotulki edo boligrafo berdez markatzeko eskatu.
- 3 Borobil gorriak egin ditzatela arriskutsuak diren guneeetan.
- 4 Honako galderei talde handian erantzun:
 - a) Zerk egiten ditu inguruak arriskutsu? Berez al dira arriskutsuak?
 - b) Erabateko adostasuna egon da arriskuguneak identifikatzerakoan? Zein izan da gehien eztabaidatu duzuen irizpidea?
- 5 Ikasle bakoitzari 3 gomets urdin emango zaizkio eta herrian edo hirian indarkeria jasan duen gunea markatu beharko du. Ondoren honako galderei erantzungo diete talde handian.
 - a) Ze indarkeria mota hartu dituzue kontuan?
 - b) Norbaitek izan al ditu gometsak faltan edo sobran?
 - c) Zer ezaugarri egiten gaituzte zaugarri hiriko edo herriko arrisku eta indarkerien aurrean?
 - d) Zer egin daiteke indarkeria horiek ekiditeko?


Saioa bukatutakoan etxean eleberriaren **HIRIA** atala irakurtzeko eskatuko zaie.





3. SAIOA


Garapena:

- 1 Ikasleei azkar batean atala laburbiltzeko eskatuko diegu. Horretarako, batek pelota txiki bat hartu, istorioaren zati bat kontatu eta beste ikasle bati pasako dio pelota.
- 2 Komikiaren ondorengo eskenak 4 taldetan banatu eta ikasleei bertan ematen diren indarkeria motak identifikatzeko eskatuko diegu, horretarako Zumaiko Asanblada feministak sortutako irudiaz baliatu daitezke, horri buruzko azalpen laburra eman ondoren:









- a) Zeintzuk dira irudien artean ematen diren antzekotasunak?
- b) Erasotzaileek zein estrategia baliatzen dute Helenengana gerturatzeko? Bortitzak izan al dira hasieratik?
- c) Zein desberdintasun ikusten dituzu Helenen erantzunean umetako egoera eta gaztetakoak alderatuta? Zein erantzun emango zenuke zuk horrelako egoera biziz gero?
- d) Zeintzuk dira erasoek gizonentzako izan duten ondorioa? Hori ikusita, aurrerantzean horrelako jarrera errepika dezaketela uste al duzu? Zergatik?
- e) Zein da Helenengan izan duten ondorioa?
- f) Zer aukera ematen du gizarteak eraso horien aurrean erantzun bat emateko?

3 Paper zuri eta koloredun bana emango diegu ikasle. Paper zurian gizon gisa identifikatzen den pertsona baten aldetik horrelako eraso bat pairatu duten, horren lekuko zuzena (begiz ikusi) ala zeharkakoa (erasotuak kontaktuta) izan diren adierazi beharko dute eta horren berri eman modu anonimoan ala papera izenpetuta. Koloredun gauza bera egin beharko dute baina gizon bezala identifikatzen ez den pertsona batengandik pairatutako erasoak adierazita.

- a) Zeintzuk izan dira ugariagoak? Zergatik dago horrenbesteko aldea?
- b) Zein da lekukoen erantzukizuna kasu horietan?
- c) Harremanik al dago 1. eguneko mapan azaltzen diren puntuen artean eta erasoetan agertutakoen artean?

Saioa bukatutakoan etxean eleberriaren **BIDEA** deritzon atala irakurtzeko eskatuko zaie.



2

GATAZKEN BIDERAKETA (Haur Hezkuntza)

Materialak: liburuak, argazkiak, kuxinak...

Denbora: txokoek irauten duten bitartean.

Taldekatze mota: talde txikia eta talde haundia.

Gelaren antolaketa: espazioa txokoka antolatua dago.

- Identitate txokoan, gelakideen argazkiak jarriko ditugu espresio ezberdinak dituzten argazkiekin.
- Ipuinen txokoan liburu ezberdinak jarriko ditugu: derrigorrez muxurik ez, pozik...
- Adierazpen txokoan emozioak adierazteko materiala proposatuko zaie: kuxinak, oihalak, musika...


Txoko hauen bitartez, egunerokotasunean, emozioak identifikatzea eta hauek hobeto adieraztea izango da helburua (ez daude saio espezifikoak, txokoak dauden bitartean landuko ditugu espresuki, baina ondoren ere egunerokoan lantzen jarraitu beharko dugu).

1. SAIOA

Gelan egunero egiten den asanbladan egunean zehar ematen diren gatazken inguruan hitz egingo dugu.

Horretarako gatazkaren protagonistek eta ikusi dutenek beraiek ikusi edo bizitakoaren errelatoa kontatuko dute. Hau, hitzez egin daiteke, edota mimikaren bitartez, irudiekin...

Bakoitzari bestearen paperean jartzea eskatuko zaio eta ondoren egoera hori nola amitu den aztertuko dute eta baita beste behin egoera berdina pasatuko balitz, ze irtenbide ezberdin eman ahalko ziren.



2. SAIOA

Gelan tratu onen dekalogoa landuko dute, eta marrazkien bitartez egunero gelakideen arteko tratua errespetuzkoa dela ziurtatzen duen marrazkia egingo du haur bakoitzak eta ondoren beste hurrei aurkeztuko die eta gelan leku ikusgarri batean jarriko dute.





3

ESKOLAK PLANTO! (Lehen Hezkuntza)

Materialak: Ipuina, galdetegia arkatza, margoak, errotulkiak, hormairudia egiteko papera/kartulinak... eta arkatza.

Denbora: 2 saio.

Taldekatze mota: talde handian / talde txikietan / bakarka.

1. saioa:


ULERMENA ETA HAUSNARKETA

Garapena:


- 1 Marizipriztinen ipuina irakurriko dugu gelan.
- 2 Erantzun ondorengo galderak:
 - Nor zen Marizipriztin? Betiko Marierrauskin eta hemen dugun Marizipriztinen arteko berdintasunak bilatu eta eztabaidatu.
 - Marizipriztin nola sentituko zela uste duzu printzearen kexa guztiak entzundakoan?
 - Zergatik ote zegoen Marizipriztin gaixorik, deprimituta eta galduta?
 - Laguntzarik eskatu al zuen? Zer erantzun zioten bere lagunek?
 - Ipuinak dio Marizipriztinek denbora asko zeramala negarrik egin gabe. Negar egitea osasuntsua dela esango zenuke? Zergatik?
 - Zer gertatu zen Marizipriztinek PLANTO! egitea erabaki zuenean? Nolakoa da Marizipriztin PLANTO! egin zuenetik aurrera?
- 3 Brainstorming:

Zein pertsonaia agertzen dira ipuinean? Irakasleak arbelean zerrenda bat egingo du ikasleek aipatzen dituzten pertsonaien izenekin eta ondoren talde handian hauei buruzko solasaldia egingo dute: itxura, portaera, izaera... Zer antzekotasun dute?
- 4 Maripertsonaiak

Ipuinean *Maripertsonaia* ugari agertu dira. Zuk zein Maripertsonaia asmatuko zenuke? Zurea deskribatu eta marraztu.



Zapatekin? Kexatuko zara zu! Begira, nire printzea modernoa da, eta hementxe nauka takoitzar haven gainean.



Marimoderni

Kexatuko zara zu! Nire printzeari izugarri gustatzen zaio behi-okela eta hamaika labe behar izaten ditut hari afaria egiteko. y



Maribaserri

Isilik egon hadi, neska! Ez esan txorakeriarik! Zeinekin hobeto printze batekin baino?



Ama
Marimandoni

Baina zu ez al zinen begetarianoa eta oinutsik ibili zalea?




Lagun
errepublikanoa
eta haren txakurra




2. saioa:
KALTE/MIN EGITEN DIGUTEN
EGOEREN AURREAN PANTO!!!

Garapena:



- 1 Pentsa seinale horren bidetik joateko aukera duzula. Nora eramango zaitu? Edo nora eramatea gustatuko litzaizuke (zoriontasuna...)? Zer aurkituko duzu bidean (lagunak, anaia...)?
- 2 Gelako PLANTO! MANIFESTUA osatu: Norberak PLANTO! zeri egingo liokeen adierazi eta leku ikusgarri batean ipini.



KORAPILOAK ASKATZEN (DBH eta Batxilergoa)

Materialak: arbela, arbelean idazteko tresna, ikasleek beraien artelana egiteko beharrezkoak dituztenak.

Denbora: 50 minutuko 3 saio.

Taldekatze mota: launaka eta talde handian.

1. saioa:

Garapena: amatasunaren inguruko hausnarketa bideratuko dugu.





- 1 Amak umerik ez zuela nahi oihukatu du, hala ere, Helen izan zuen. Ikasleak taldeka jarri eta amaren gaztaroko egoeran hausnartu dezatela eskatuko diegu. Role play baten bitartez, ikasle batek haurdun dagoela jakin berri duen gaztearen papera egingo du eta besteek egoera horren aurrean umea izatearen aldeko eta kontrako gomendioak ematen dizkioten lagunak izango dira. Talde bakoitzari garai ezberdin batean dagoela adieraziko diogu: amonaren garaia, amaren garaia eta beraiena. Irakasleak umea edukitzearen aldeko eta kontrako argumentuak apuntatuko ditu ikusgai dauden leku batean garaika sailkatuta.
- 2 Antzerkiak egindakoan, komikiko eskenaren eta amatasunaren inguruko eztabaida bideratuko dugu:
 - a) Zeintzuk uste duzue izan daitezkeela Helenen ama umea izatera behartu zuten arrazoiak? Nork hartu behar du erabakia? Indarkeria motaren bat antzematen al duzu irudietan edo emandako argumentuetan?
 - b) Zer alde dago garaien artean? Zer gizarte mugimenduk lortu du emakumeen erabakitzeko eskubidea indartzea? Egoera berdina al da mundu osoan?
 - c) Justifikatuta al dago amaren jarrera?
 - d) Ados al zaudete honako adierazpenekin?

«Emakumeek izan dezaketen eskubideen artean, ama izatea handiena da».
LIN YUTANG

«Gizonezkoak amek beraiekin egin zutenaren emaitza dira».
EMERSON

«Ama: hogeiren lana doan egiten duen pertsona».

Saioa bukatutakoan etxean eleberriaren **LANDA INGURUA** deritzon atala irakurtzeko eskatuko zaie.

2. saioa:

Garapena: komikiaren bukaera eztabaidatuko dugu ikasleekin talde handian eta mozorrotutako indarkeria biluzteko ekimen artistikoa gauzatuko dugu.



- 1 Espero zenuen bukaera izan du eleberri grafikoak?
- 2 Bestelako amaierarik emango zenioke?
- 3 Helenek bizitako indarkeria pairatzen dute beste emakume askok ere egun. Ikasleei emakume horiei babesa adierazteko edo mozorrotutako indarkeriak biluzteko taldeka ekintza txiki bat sortzeko proposamena egingo diegu, hala nola: pankarta bat, emakumeei / gizarteari/ erasotzaileei zuzendutako gutuna, poesia, abestia, irudia, bideo laburrak, argazkiz eta datuez hornitutako haria sareetan, enkarteladak, etab.

3. saioa:


Bukatutakoan horiek aurkeztu eta dagokien euskarriaren bitartez zabalduko ditugu (webgunea, egunkaria, aldizkaria, sareak, etab.) eta mozorrotutako indarkeria biluzteko ekimen artistikoa gauzatuko dugu



HAUR HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOA:0-3

Talde pedagogikoa:

- 1 Erregistro bitartez aztertu gelan gertatzen diren gatazkak:
 - Non:
 - Ordua:
 - Protagonistak:
 - Ze jokaera agresiboa izan den:
 - Nola sentitu zara zu horren aurrean:
 - Nola bideratu duzu:
 - Deskribatu hurrek ze nolako espresioa duten eta zer egin duten. Bere sentimenduen interpretazio bat egin.
- 2 Bilera pedagogikoa:
 - Datuak taldeka aztertu.
 - 0-3 Urte bitarteko garapen psikoebolutiboa aztertu hurrek dituzten kondukta agresiboak bertan kokatuz.
 - Zer esaten digute hurrek? Interpretatu haurraren lengoaia.
 - Erasotzailea eta erasotuaren beharrak kontutan izan.
 - Gatazken intentsitatearen arabera adostu aurre egiteko protokolo bat.
- 3 Talde hausnarketa:
 - Adostutakoa amankomunean jarri.
 - Nola sentitzen gara, ze zailtasunak aurkitzen ditugu, protokolora egokitu.
- 4 Familiekin tailerra:
 - a. Prozesu honetan dokumentatutakoarekin aurkezpen bat egin.
 - b. Eskolan gertatzen diren gatazkekin esku hartzea azaldu etxean ere praktikan jartzeko behin haurtzaroan gertatzen diren gatazken esanahia ulertzen dutenean.



Ebaluaketa

Kartelarekin egingo den lehenengo jarduera ikasleek erasoez dituzten ezagupenak edota sentsibiltatea ebaluatzeke erabiliko da. Horrek erraztuko du zehazten zeintzuk diren bereziki landu behar diren alderdiak.

Unitatea lantzen den bitartean, ikasleen parte hartzea eztabaidetan informazioaren bilaketan eta materialen elaborazioa behaketa sistematiko baten bitartez ebaluatuko da.

Unitatea bukatzean, berriz, ikasleen banakako eta taldeko lana baloratuko da ezarritako irizpideen arabera.

Bestalde, jarduera bakoitzaren bukaeran jardueraren beraren ebaluazioa egingo da, zerk funtzionatu duen, zerk ez, nola antolatu den gela, denbora, ikasleen motibazioa, taldekatzea... Hau guztia unitatearen prozesua eta garapena egokitzeko erabiliko da.

EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

- Ea kontzientea den harremanetan indarkeria dagoela.
- Ea eguneroko egoerak behatzen eta aztertzen dituen genero osagaia kontuan hartuz.
- Ea ohartzen den harremanetan dauden estereotipoak.
- Ea harremanetan izan behar dituzten ezaugarriak bere lehentasunak adierazten dituzten.
- Ea kontzientea den harremanetan indarkeriak ekartzen dituen arriskuez.
- Ea ezagutzen duen ondorengo hitzen esanahia: beldurra, negoziazioa, jeloskortasuna, balorazioa, errespetu, sostengua, elkarrizketa, mespretxua, berekoikeria, inposaketa, lotsa, eskuzabaltasuna, segurtasuna eta gai den jakiteko zeintzuk diren egokiagoak bizikidetasunerako.
- Ea ezagutzen duen askatasuna eta ausardia hitzen esanahia eta bere balio baikorra edota ezkorra.
- Ea bere emozioak identifikatzen eta bideratzen dituen.



EBALUATZEKO TEKNIKA


- Behaketa.

EBALUATZEKO TRESNAK

- Irakaslearen eguneroko jarraipena.
- Egindako lanak.

IKASLEEN EBALUAZIOA

- Zer den gehien eta gutxien gustatu zaiena.
- Zer den ikasi dutena edota zertaz jabetu diren.
- Zerk harritu dituen gehien.
- Zer aldatuko zuten prozesuan.



BALIABIDEAK

<http://www.mujaresenred.net/IMG/pdf/lacenicientaquenoqueriacomerperdices.pdf>

Marizipriztinek ez du zorioneko galeperrik nahi liburua edota sarean dagoen bideoa.

<https://es.slideshare.net/mayonesaUPV/marizipriztinek-ez-du-zorioneko-galeperrik-nahi-ipuin-tradizionalen-bertsio-desberdina> (gaztelera)

Galdera moreak:

<https://www.youtube.com/watch?v=4wr-Gg-H3kk&pbjreload=10>

Horma ikusezinak:

<https://www.youtube.com/watch?v=QsLT66eg4mc>

Horma ikusezinak:

<https://www.youtube.com/watch?v=raAvPSWpHq4&list=PLJoyef5C9bboSoDyTZ1DApO4sEV TdyRKW>

WEBGUNEAK:

https://www.euskadi.eus/web01-a3infan/es/contenidos/informacion/sexu_muxu/es_def/index.shtml

KOMIKIAK:

Ongi maita nazazu. Rosalind B. Penfold. Astiberri argitaletxea.
El cuento de la mala rata. Bryan Talbot. Astiberri argitaletxea.
Cuéntalo. Laurie Halse eta Emily Carrol. La Cupula argitaletxea.
Ez zaitez nahasi sarean. Eusko Jaurlaritza.
Maitez minduta. M.A. Giner eta C. Duran. Sarean dago.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Astiberriri unitate didaktiko honetan dauden irudiak erabiltzen uzteagatik.

Mozorrotutako
indarkeria
biluztu

